

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udabaltzak 2021eko irailaren 23an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, dirulaguntzen 2021eko deialdia egin zen Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara txertatzeagatik

DDBN(Identif.): 590042

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/590042>).

Lehena: onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango du: edozein pertsona fisiko edo juridikok, baldin eta Aiarako udalerrian kokatutako merkataritza edo ostalaritza establezimendu baten edo zerbitzu enpresa baten titularra bada (nahitaezkoa izango da Aiarako udalerrian merkataritza establezimendu bat irekita edukitzea) eta 2021. urtean diruz laguntzeko moduko jarduerak egiten baditu edo egin baditu, eta baldintza hauek betetzen baditu:

- Egoitza soziala Aiaran ezarrita izatea.
- Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Dirulaguntzen onuradun izateko inolako debekurik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 13ko 38/2003 Lege Orokorren 17. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Bigarrena: xedea

Oinarri hauen helburua da Aiarako Udalak, bere euskara arloaren bidez, Aiarako udalerrian kokatutako merkataritza eta ostalaritza establezimenduei eta zerbitzu enpresei 2021ean emango dizkien dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, indarrean dagoen deialdian (2021) egindako errotulazio lan berrietan euskara txertatzeagatik. Jarduketa 2021eko abenduaren 31 baino lehen egin behar da.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2021eko irailaren 23ko erabaki bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu.

Oinarriak eta eskaera erdua Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarakoudala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdia 2.000 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

Hilabete, deialdiaren laburpen hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2021eko urriaren 15a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA